

**BIZILAGUNEK NBICI-BIZIZ ZERBITZUKO APARKALEKU PUBLIKOAN BIZIKLETAK APARKATZEKO PLAZAK ERABILTZEAREN TRUKE ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ERREGULATZEN DUEN ARAUA**

**16. araua**

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea da Iruñeko Udaleko Nbici-BIZIZ zerbitzuko aparkaleku publikoetan bizilagunei esleitutako aparkatze-tokien erabilera.

3. artikulua.- Arau honetan urteko tarifatzat ezarritako prezio publikoen sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gauzatuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du, aparkatzeko tokiaren esleipendunak tarifa hori hautatu balu.

Zerbitzuaren erabiltzaile gisara hartutako alta edo bajen kasuan, zergaldia horren arabera izanen da, halako moduz non kuota hilabete naturalen arabera hainbanatuko baita, betiere alta edo baja noiz hartu eta hilabete hori barne harturik.

4. artikulua.- Arau honetan hilabeteko tarifa gisara ezarritako prezio publikoen sortzapena hilabete bakoitzeko lehen egunean gauzatuko da, eta zergaldia hilabete naturala izanen da, aparkatzeko tokiaren esleipendunak tarifa hori hautatu balu.

Zerbitzuaren erabiltzaile gisara hartutako alten kasuan, zergaldia horren arabera izanen da, halako moduz non kuota egun naturalen arabera hainbanatuko baita, betiere alta noiz hartu eta egun hori barne harturik.

Zerbitzuaren erabiltzaile gisara hartutako bajen kasuan, hori noiz gertatu eta hilabete horri dagokion tarifa ordainaraziko da, betiere baja hilabeteko zein egunetan hartu eta hilabetea osatzeko falta diren egunetako kuota hainbanatu gabe.

Nork ordaindu behar

5. artikulua.- Prezio publikoak ordaintzera derrigorturik daude, zergadun gisara, Iruñeko Udaleko Nbici-BIZIZ zerbitzuko bizikleta-aparkaleku publikoetan bizilagunendako aparkatze-tokien erabilera-lizentzia duten pertsona fisiko titularrak.

Oinarriak, tasak eta tarifak

6. artikulua.- Aplikatu beharreko prezio publikoak Arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

7. artikulua.- A tarifa murriztua Errenta Bermatua jasotzen ari diren pertsoneri aplikatuko zaie, betiere horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu badute.

8. artikulua.- B tarifa murriztua, bestalde, honako hauei aplikatuko zaie: A tarifa murriztua aplikatzeko eskubiderik eduki ez eta Arau honi atxikitako taulan adierazitako urteko diru-sarrerak gainditzen ez dituzten familia- edo bizikidetzak unitateetan bizi direnei. Urteko Ondore Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa (OAEAP) erabili da erreferentzia gisara.

Diru-sarrerak zehazteko, PFEZaren gaineko aitorpena edo likidazioa egiteko betebeharrak duten pertsonen azken aitorpena edo likidazioa –eskaera noiz egin eta data horretan jada aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona– hartu, eta haren zerga-oinarriaren zati orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia batuko dira, eta emaitzari salbuetsitako prestazioen edo errenten zenbatekoa gehituko zaio. Ez dira salbuetsitako prestazio edo errentatzat hartuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko emandako laguntzak, baldin eta zaintza horiek familiakoek edo profesionalak ematen badituzte. Erabiltzaileek PFEZaren gaineko aitorpena egin behar ez izatera, datu fiskaletan jasotako diru-sarrera gordin eguneratuenak hartuko dira kontuan.

9. artikulua.- Haurrendako tarifa aplikatuko zaie 14 urtetik beherakoek haur-bizikletak aparkatzeko erabilitako tokien esleipendunak diren gurasoei edo legezko tutoreei.

Kudeaketa-arauak

10. artikulua.- Lizentziak ematea, zerbitzuan alta eta baja hartzea eta aparkatze-tokien zein aparkalekuen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak Nbici-BIZIZ aparkaleku publikoko zerbitzuaren gaineko Ordenantzak xedatutakoarekin bat arautuko dira.

11. artikulua.- Bizilagunendako aparkatze-tokien erabilera-lizentzien titularrek, hala urteko tarifa nola hilabetekoa dutela, zerbitzuan baja hartzen badute, derrigorrean eman beharko dute horren berri behin baimendutako erabilera noiz agortu eta orduan. Bestela, ulertuko da aparkatze-tokia erabiltzen segitzen duela Nbici-BIZIZ zerbitzuaren eskura baja iritsi bitarte.

12. artikulua.- Urteko tarifari dagokion prezio publikoa banku batean helbideratutako kontuaren bidez ordainduko da, banku-igorpenean urteko lehen hogeigunegun naturala zehar egiten delarik. Alta urteko tarifa-modalitatean hartuz gero, altaren data ez badator urteko lehen egunarekin bat, Arau honen 3. artikuluan zehaztutako zergaldiari dagokion ordainagiria igorriko da, betiere alta noiz hartu eta hurrengo hilabetearen lehen hogeigunegun naturalen barruan.

13. artikulua.- Hilabeteko tarifari dagokion prezio publikoa banku batean helbideratutako kontuaren bidez ordainduko da, banku-igorpenera hilabeteko lehen hogeiegun naturaletan zehar egingen delarik. Alta hilabeteko tarifa-modalitatean hartuz gero, altaren data ez badator hilabeteko lehen egunarekin bat, Arau honen 4. artikuluan zehaztutako zergaldiari dagokion ordainagiria igorriko da, betiere alta noiz hartu eta hurrengo hilabetearen lehen hogeiegun naturalen barruan.

14. artikulua.- Zerbitzuaren erabiltzaile gisara baja hartuz gero, Arau honen 3. eta 4. artikuluekin bat egoki diren diru-itzulketak zerbitzuan baja hartu izanaren berri noiz eman eta hurrengo hilabetean egingen dira.

#### TARIFA-ERANSKINA

	Hilean		Urtean	
	Helduak	Haurrak	Helduak	Haurrak
Normala	8,16 €	4,08 €	48,96 €	24,48 €
Murriztua (A)	4,08 €	2,04 €	24,48 €	12,24 €
Murriztua (B)	6,12 €	3,06 €	36,72 €	18,36 €

#### GEHIENKO DIRU-SARREREN TAULA, B TARIFA MURRIZTUARI HELTZEKO

FAMILIA- EDO BIZIKIDETZA-UNITATEAREN KIDE-KOPURUA	GEHIENKO DIRU-SARRERAK URTEAN, OAEAParen ARABERA
Kide bat	OAEAP halako 2,20 arte
2 kide	OAEAP halako 2,50 arte
3 kide	OAEAP halako 2,75 arte
4 kide	OAEAP halako 3,00 arte
5 kide edo gehiago	OAEAP halako 3,25 arte